



Mikel Ayerdi il zaigu

Orra, itz bitan, soil-soilki, berri garratz bat. Edozeñen eriotza mingarri da beti. Adiskidea-rena areago.

Adiskide ori aberkide ta abertzale degunean berriz eriotz-berria bene-benetan ituna zaigu.

Mikel Ayerdi, zarautztarra, aspaldiko adiskidea genuen eta txikitandikako abertzale zan. Abertzale burrukalaria, abertzale piña.

Mendigöizaleen salletik Jagitarren barrutira bildua. Azkenaldi ontan, Caracas'en, "Frente Nacional Vasco'ko" eralguntzan burukide zan,

Eta astelen goiz batez, lantokian bere zeregiñetan asi orduko, eriotzak bidea itxi zion.

Caracas'en gelditu zaigu; Zarautz'era ez da itzuliko.

Jaungoikoa'k orrela nai izan ba'du, bete bedi Bere naia.

Goian bego gure adiskidea.

Bere alargun, seme, senide ta sendikoak jaso bezate gure samin agur beroena.

Mikel'en eriotzakin IRRINTZIK galdu du euzko idazle jarraiki bat; Euzkadi'k gure aberriak, abertzale sutzua, eta guk danok adiskide on aundia. Goyen bego, Mikel; eta emen geran artian, jakintzazu zure euzko abertzale bidietatik jarraituko degula.

Cándido Arregi, Angel Agirretxe, Mariano Astiz, Pedro Zabala eta gaur, Mikel Ayerdi... Banan, banan abertzalerik onenak badijoaz zerura, Euzkadi maitia. Geranok oraïndik, aleginduko algera ba, utzi gaituzten lanak betetzeko. Zalla izango da, bañon emen gure itza emonda: Gora Euzkadi AZKATUTA.

Juan San Martín'en "Zirikadak"

Eibar'ko gure adiskide gazte baña jakintsu eta langille dan Juan San Martín'en liburu ederra artu degu. Eskerrik asko.

Liburuan izena: "Zirikadak" Orantxe etaratakoa.

Errez, ziero errez irakurtzen dana, euzkerazko irakur gaien billa dabizenak ez dute izango beste bat goxoagoa. Batetik atzalgai laburrekin betia dagolako; bestetik danak barregarriak diralako.

Ori izan da, esango genuke, San Martín'en aurrenengo lana: Eibar, Soraluze, Elgoibar eta inguruko ipuntxuak batu eta irarkolara eraman.

Ara, bat emen: "Mezede baten ordez" izena. Diño:

—Bein, juan zan guraso bat bere semeari elgorrixa osatzen ibili zan medikuarengana kontua pagatzera. Karutxua eritzi zetsan, da gizonak erregutu zetsan:

—Zerbait merkatuko destazu baña.

—Merkatu? Zer dalata?

—Ba, eskerrak nere seme oni, aurten darabizuzen iarabasiok ez zenduzen izango.

—Zer ba? —erantzun zetsan medikuak.

—Bera izan zalako eskolako guztieri elgorria pegau zetsena.

Batu degu txiste au laburrenetakoa dalako, naiz eta danak laburrak eta barregarriak izan, itxura emoteko gure irakurleeri nolako lan ederra dan San Martín ospetzuak egindakua. Bestela, Juan Antonio Mogel Eibar'ko semea zala ta, onen ondorian eibartarrak egin dituzten jaiak dirala, azpaldi onetan, San Martín gure adiskide au, jota ausi bearren dago euzkerian alde lan de lan eta izango genun zer idatzi. Baña

IRRINTZI'k dun jokaera ez da gauza onetan sartzia eta, San Martín ospetzuari zorionak emon da, ez genuke besterik nai etara dituzen ale guztiak beriala bukatzia baño IRRINTZITARRAK ia laguntzen dizkiozuen ala izaten.

Eta Irrintziko irakurleak: billatu eta eskatu "Zirikadak", neikua barre egingo dezute eta. Ez zera damutuko.

Zorionak, San Martín, jauna.



ZIRIKADAK

JUAN SAN MARTIN

EDITORIAL ITXAROPENA